

herrera-bidebieta

herrera baserriz soilik osatua zegoen auzoa zen. Hainbat eta hainbat tokitan bezala, zabalkunde industrialak bere legeak ezarri zituen, eraikin ugari egin zen denbora gutxian eta gure auzoa bidegurutzez josia geratu zen.

Zabalkundea hasi baino lehen, baserria eta nekazaritza ziren Herrerenaren sostengu ekonomikoa eta bertan herri bizitza egiten zen.

Errepideak nagusi

Herrera 1900. urtean hasi zen hiri itxura hartzen. Industrializazioak bultzatuta eta bere kokagunaren ondorioz, Herrerak alde guztietan bidegurutze eta komunikazio sistema modernoak dauzka.

Jose Elozegi Alkatearen ibilbidea esate baterako, N-1 errepidea da eta beronek lotzen ditu Donostia eta Errenteria. Larratzora garamatzen bideak ere erdi erditik zatitzen du gure



Argazkiak argi azaltzen digu. Herreran, mendearen hasieran, baserri bizitza zen nagusi Donostiako inguruko auzo gehienetan bezala. Industrializazioa eta zabalkundearen ondorioz, gehien aldatu den auzoetakoa bat dugu orain.

Bidegurutzeen arteko auzoa

auzoa. Gainera, Donostia inguratzen duen bariantea bertatik pasatzen da eta Buenavista aldera joateko ere, beste bide bat du Herrerak.

Errepide sare nahasi honi burdinbidea ere gehitu behar zaio, Renfe entrepresak auzoa gurutzatzen

du Madrid-Irun sarearekin eta Eusko Trenbideak-ek ere Jose Elozegi ibilbidearen bestekaldean dauka bere tren geltokia.

Herri giroa berreskuratu nahian

Komunikazio sare nahasi honek, XXI. mendea-


ren atean gaudenean, Herrerenaren ezegonkortasuna eragin du eta lotarako auzo bihurtu da. Espero dezagun Udalak dauzkan plangintza berriekin, Herrerak galdutako herri bizitza berreskuratzea lortuko duela.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnoa.:391267)

Horiek agian ez dute behar,



eta zuk?



- Euskarazko lehen Hiztegi Entziklopedikoa
- 12.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez
- 8. alea kalean dagoeneko



Obra honi buruz informazio gehiago jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak

Helbidea

Herria P.K.

Lanbidea

Tel.

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.
LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA